

## CARITASEN KANPAINA

2014.eko ekainaren 22a

**KRISTOREN GORPUTZ ETA  
ODOL GUZTIZ SANTUA (A)**  
*‘Karitate Eguna’*

**«ITXAROBIDEAK  
IREKI»**

*Liturgi lagungarriak*

### **Atarikoak:**

- ✿ Gogoan izan ezinbestekoa dala lagungarriok, luzera eta hizkerari jagokonez, alkarte bakoitzera egokitzea.
- ✿ Egun honetan, Karidade Eguna ospatzen da; egun honek lehen Eguen Santuz ospatzen zan Senide Maitasunaren Egunaren sena be jasoten dau.
- ✿ Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan partaidetza esanguratsu eta gogotsua izatea.
- ✿ Eukaristiaren liturgia zaintzeko egun aproposa da gaurkoa: oparien aurkezpena (altararen behekaldean itziko dogun dirua barru –dirua batu aurretik ez litzateke egokiago izango oharra irakurtea?-); Eukaristia otoitzaren aurreko alkarrizketea abestuta; eukaristia otoitza, erantzunak abestuz; ogiaren zatitzea, “Jaungoikoaren Bildotsa” abesten dan bitartean; jaunartzea

### **HASIERAKO OHARRA**

Anai-arrebok: Kristoren Gorputz eta Odol Guzti Santuaren eguna ospatzen dogu domeka honetan.

Eleizak ospatzen dauan eukaristia gure fedearen sakramentua da, itxaropenaren oinarria, betiko bizia emongo deuskun sendabidea eta maitasun-iturri eta eskakizuna.

Azken horrengaitik hain zuzen be, gaur Karidade eguna da. “Soiltasunez bizi beste batzuk, beste barik, bizi daitezán”, Caritasek martxan jarri eban kanpaina karidadea eta itxaropena bizitzeko deia da. Euren bizitzan, euren fedearen konpromiso eta

## CAMPAÑA DE CÁRITAS

22 de junio de 2014

**SANTÍSIMO CUERPO Y  
SANGRE DE CRISTO (A)**  
*‘Día de Caridad’*

**«CONSTRUYENDO  
ESPACIOS  
DE ESPERANZA»**

*Subsidios litúrgicos*

### **Notas previas:**

- ✿ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- ✿ Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✿ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- ✿ Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación de los dones (incluida la colecta, que se deja a los pies del altar -¿convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva?-), la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan mientras se canta “Cordero de Dios”, la comunión...

### **MONICIÓN INICIAL**

Hermanas y hermanos: En este domingo celebramos la solemnidad del Cuerpo y Sangre de Cristo.

La eucaristía que celebra la Iglesia es el sacramento de nuestra fe, fundamento de la esperanza, remedio de inmortalidad y fuente y exigencia de amor.

Precisamente por esto último, hoy es Día de Caridad. La campaña de Cáritas “Vive sencillamente para que otros, sencillamente, puedan vivir” nos invita a celebrar la caridad y la esperanza desde quienes hoy encarnan en su propia vida estos valores, a través de su compromiso y la radicalidad de





sendotasunaren bidez, balio honeek bizi dabezanen, gure gizarteko gizabanako eta gizatalderik ahulenakaz itxaropenari bide emoten deutsenen karidade eta itxaropena. Caritasek alkartasun-, senidetasun- eta itxaropen-bide barriak iragarten ditu.

Pozarren ekingo deutsalagu eukaristiari, alkarregaz abestuz.

## **SARRERAKO ABESTIA**

## **ABADEAREN AGURRA**

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

## **DAMU OTOITZA**

Jesusen jarrerren antzekoak behar doguz Eukaristia ospatzeko. Aldatu daiala Jaungoikoak gure bihotza.

- Jauna: zure kutunak, txiroak, baztertu egiten doguz. Zu, aberats izanda, txiro egin zinan gugaitik. Erruki, Jauna.
- Jauna: ez dogu benetako senidetasunik bizi. Zu gure Anai egin zinan. Kristo, erruki.
- Jauna: ez gara zure biziaz asetzen. Zu janari egin zinan gure goseak asetzeko. Erruki, Jauna.

## **OHARRA 1. IRAKURGAIRI**

**(Dt 8, 2-3. 14b-16a)**

Israel herriak esperientzia sakona bizi izan eban: basamortuan, urik inondik inora be ez eukan lur-eremu siku-sikuan, Jaungoikoaren hitza hatxetik ateraten dan urak eta Jaungoikoaren opari zoragarria dan manak beste garrantzia dau.

## **OHARRA 2. IRAKURGAIRI**

**(1Ko 10,16-17)**

Kristoren Gorputz eta Odolean bategiteak, anai-arreben arteko batasunaren alde egitera garoaz. Eukaristiako ogi eta ardao janari dira euren burua eta bihotza zabaldu eta inor, nahiz eta urrunekoa izan, kanpoan itzi gura ez daben persona solidarioentzat.

su fe, y construyen espacios de esperanza junto con las personas más vulnerables de nuestra sociedad. Cáritas anuncia caminos nuevos de solidaridad, fraternidad y esperanza.

Con alegría comencemos la eucaristía y cantemos unidos.

## **CANTO DE ENTRADA**

## **SALUDO DEL PRESIDENTE**

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con todos vosotros.

## **ACTO PENITENCIAL**

Para celebrar la Eucaristía necesitamos unas actitudes parecidas a las de Jesús. Pidamos que Dios transforme nuestro corazón.

- Señor: marginamos a tus preferidos, los pobres. Tú, que, siendo rico, te hiciste pobre por nosotros: Señor, ten piedad.
- Señor: no vivimos una auténtica fraternidad. Tú, que te hiciste nuestro Hermano: Cristo, ten piedad.
- Señor: no nos saciamos de tu vida. Tú, que te hiciste alimento para saciar nuestras hambres: Señor, ten piedad.

## **MONICIÓN A LA 1ª LECTURA**

**(Dt 8, 2-3. 14b-16a)**

El pueblo de Israel vivió una experiencia fundamental: en el desierto, un sequedal sin una gota de agua, la palabra de Dios es tan necesaria como el agua que sale de la roca y el maná, ese pan maravilloso regalo del Señor.

## **MONICIÓN A LA 2ª LECTURA**

**(1Co 10,16-17)**

La comunión en el Cuerpo y Sangre de Cristo nos lleva trabajar por la unión de los hermanos. El pan y el vino de la Eucaristía son alimento para personas solidarias que quieren agrandar su mente y su corazón para que nadie, aunque venga de lejos, se quede fuera.

**EBANJELIOA -Aleluiaren aurretik-  
(Jn 6, 51-59)**

Bera, zerutik jatsitako ogi bizia dala dino Jesusek, Berak emongo deuskula behin betiko Bizia, Bera dala munduaren Bizia. Kristoren Gorputza jatea, Beragaz jaunartzea, Beragaz eta gainerako gizon eta emakumeakaz bat egitea da, Jaungoikoaganako eta anai-arrebenganako maitasuna bat bera eta banatu ezina dalako.

**JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA**

Egin deiogun otoitz Jaungoiko Aita errukitsuari, bere egundoko maitasuna Jesukristogan agertzera emon deuskunari.

- Eleizearen eta eleiztar guztion alde; Jaungoikoaren maitasunaren lekukotasun ona emon daigun munduan.  
*Eskatu deiogun Jaunari.*
- Herri, nazino eta erakundeetako agintarien alde; euren erabagietan zuzentasuna eta alkartasuna nagusitu daitezkan.  
*Eskatu deiogun Jaunari.*
- Caritaseko behargin eta laguntzaileen alde; behin eta barriro dei egin deiogun gure gaitasunak jarri daiguzan eta gizarte honetan jagoken leku gizatiar eta duina irrikatzen dabenen itxaropena geure egin daigun.  
*Eskatu deiogun Jaunari.*
- Bidebakokeria, bazterketa, langabezia eta krisiaren gainerako eraginak jasaten dabezanen alde; euren eskubideak errespetatu daitezkan eta gizarteratzeko aukera izan daien.  
*Eskatu deiogun Jaunari.*
- Eukaristia ospatzen ari garanon alde; soiltasunez bizi gaitezkan eta alkarregaz biziz, ontasunez, zuzentasunez eta alkartasunez betetako eremuak eratu daiguzan.  
*Eskatu deiogun Jaunari.*

Entzun, Aita, gure otoitza; Jesukristo betiko biziaren ogia irrikatu daigula beti.  
*Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.*

**EVANGELIO -antes del Aleluya-  
(Jn 6, 51-59)**

Jesús se presenta a sí mismo como el pan vivo que ha bajado del cielo, el que es capaz de dar la Vida definitiva, la Vida al mundo. Comer el Cuerpo de Cristo, comulgar con Él, implica una total unidad a su persona y una identificación con las personas, porque siempre van unidos el amor a Dios y a los hermanos y hermanas.

**ORACIÓN UNIVERSAL**

Oremos a Dios, Padre de misericordia, que nos ha manifestado su inmenso amor en Jesucristo:

- Por la Iglesia y quienes la formamos, para que demos en el mundo un buen testimonio del amor de Dios.  
*Roguemos al Señor.*
- Por quienes tienen responsabilidades en los pueblos y naciones, en grandes instituciones y organizaciones, para que prevalezca en sus decisiones el espíritu de justicia y solidaridad.  
*Roguemos al Señor.*
- Por quienes trabajan en Cáritas y colaboran con ella, para que no dejen de llamarnos a poner nuestras capacidades en movimiento, haciendo nuestra la esperanza de quienes anhelan tener un espacio humano y digno en la sociedad.  
*Roguemos al Señor.*
- Por las personas que sufren la injusticia, la exclusión, el paro y demás efectos de la crisis, para que sus derechos sean respetados y puedan integrarse en la sociedad.  
*Roguemos al Señor.*
- Por quienes estamos celebrando la eucaristía, para que vivamos con sencillez y construyamos junto con otros esperanza, espacios comunes de vida, de benevolencia, de justicia y de solidaridad.  
*Roguemos al Señor.*

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna. *Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.*





## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Karidadearen ordua da. Caritasek dei egiten deusku parte hartu eta itxaropena gauzatu daigun.

Laguntza hori jasoko dabenen izenean, eskerrik asko guztioi eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

## HAUSNARKETARAKO

Jesus Biziaren Ogia da, Jaungoikoagandik etorria, giza bihotzaren goseteak behin betiko ase-tzeko: atsekabe sakonak, bizitzako nekea, min eta txarkeriaren zentzunbakokeria, bihotzaren irrikak... Bera da Jaungoikoak gizadiari emoten deuskan benetako mana. Gainerako ogi guztiek (dirua, kontsumismoa, ospea, agintea, sexua...) ez dabe erabat asetzen giza bihotzaren gosea, gose handiagoa izten dabe... Biziaren Ogi hau ezin dogu geuk bakarrik lortu, ezin dogu geure kapritxora erabili, itxaron eta jaso, banatu eta ospatu egin behar dogu.

Jesus gure bizia elikatu daiken eta gure bihotzak benetako egi, ontasun eta edertasunera bihurtuz, bizi barrira zabaldu daikezan Ogia dala sinisten dogunok zera autortzen dogu: Kristo Kurutziltzatu eta Berbizituaren jarraitzaile izatea ez dala ideia batzuetan sinistea, gure bizitza Haregaz sustatzea, bizitzan ebazan jarrera eta erespedeak geure egitea, Aitaganako grinaz eta bere seme-alabenganako maitasunaz elikatzea baino. Jesusek barriro jaioteko dinosku, bere gorputza gure bizitza suspertzen dauan ogia da eta guzti hori barru-barrutik gertatzen da Berak barru-barrutik aldatzen gaitualako. Eta horretarako, barru-barruraino sartzen itzi behar deusagu, sustraitik aldatu gaizan eta bere Espirituaren indar bizia euskarri izan daigun. Holan Jesusegaz komulgatuko dogu eta ogi izango gara besteentzat, on egingo dogu eta beste batzuk on egitera bultzatuko doguz, alkarri adore emongo deusagu eta alkarlanean jardungo dogu guztion onerako.

ELENA GASCÓN

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO:

Es tiempo de Caridad. Cáritas nos invita a participar y hacer posible hoy la esperanza.

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad.

## TEXTO DE REFLEXIÓN

Jesús es el Pan de Vida, venido de Dios para saciar definitivamente las hambrunas del corazón humano: las profundas insatisfacciones, el cansancio de la vida, el sin sentido del dolor y del mal, los anhelos del corazón... Él es el verdadero maná que Dios da a la humanidad. Todos los demás panes (el dinero, el consumismo, la fama, el poder, el sexo,...) no logran saciar plenamente el hambre del corazón humano, dejan un hambre mayor... Este pan de Vida no podemos conseguirlo por nuestra propia cuenta, ni disponer de él a nuestro capricho, no nos queda otra que esperarlo y recibirlo, repartirlo y celebrarlo.

Los que creemos que Jesús es el Pan que puede alimentar nuestra vida y abrir nuestros corazones a una vida nueva, dándonos acceso a la verdad, la bondad y la belleza verdaderas, reconocemos que el seguimiento del Cristo Crucificado y resucitado no es creer un conjunto de ideas, sino nutrir nuestra vida de su misma persona, interiorizar sus actitudes y criterios de vida, alimentarnos de su pasión por el Padre y su amor por sus hijos e hijas. Si la propuesta de Jesús es nacer de nuevo, si su cuerpo, su vida es pan que alimenta nuestra vida lo hace desde dentro renovándonos. Y ello requiere que nos dejemos habitar por Él para que nos transforme de raíz y nos sostenga la fuerza vital de su Espíritu. Sólo así comulgamos con Jesús y empezamos a ser pan para otros, a hacer el bien e inspirar a otros a hacerlo, alentarnos y trabajamos con otros por el bien común.

ELENA GASCÓN

